

## **Gaurtik hasita Manuel Lekuona biblioteka itxita egongo da hamar egunez**

Manuel Lekuona bibliotekako lanak direla eta, gaurtik (irailak 3) aurrera biblioteka itxita egongo da.

Aurreikuspenen arabera, hilaren 10ean irekiko da berriz bibliotekako zerbitzua. Segurtasun neurriak bermatzeko hartu da zenbait egunez biblioteka itxteko erabakia.

Gogoratu Manuel Lekuona biblioteka obretan dagoela maiatzaz geroztik, egokitzapen lanak egiteko. Komunak ezinduentzako egokitzen ari dira eta igogailua ere jarriko dute, beheko solairutik ganbararaino.

Udaletxeko brigadak eta Oarsoaldea Garapen Agentziaren bidez kontratatuko hiru langile ari dira lan horiek egiten.